

## Basque Research web gunearen IV. Tesien Saria

2006/05/02

Elhuyar Fundazioaren **Basque Research** web guneak **IV. Tesien Saria** jarriko du abian maiatzaren 1ean, Euskal **Herriko Unibertsitateak** eta **Mondragon Unibertsitatearen** babesari esker. Horrenbestez, doktoretza amaitu berri duten ikertzaileen lanak saritu nahi ditu **Basque Research** web guneak.

**Sariketa** honen helburua da ikertzaile gazteek unibertsitatean egiten dituzten lanak gizarteratu eta saritzea:

- Zientzia eta/edo teknologiao **doktore-tesien** laburpenak bidali behar dira sariketara, 2005ean azterketa gainditu zuten tesienak betiere, Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako Foru Erkidegoko eta Ipar Euskal Herriko edozein unibertsitatean aurkeztuak.
- Laburpenek ez dute **3.000 karaktere** baino gehiago izan behar, eta argazki edo irudi bat ere bidal daiteke.
- Euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez aurkeztu daitezke lanak. **Hizkuntza** batean baino gehiagotan bidal daiteke laburpena, eta bertsio horiek guztiak argitaratuko dira.
- Kontuan izan doktore-tesien laburpenak **era** erakargarri eta ulergarrian argitaratu behar direla.
- Bi **sari** banatuko dira: Sari Nagusia eta Bigarren Saria. Bost lagun arituko dira epaimahaian. Zientzia- edo teknologia-ikasketak dituzte guztiek, eta dibulgazioan adituak dira:
  1. Sari Nagusiaren irabazleak ordenagailu eramangarri bat jasoko du, Sistek Informática y Microsistemas informatika-etxearen laguntzari esker.
  2. Bigarren Sarian, berriz, tesiaren egileak Euskal Autonomi Erkidegoko landetxe batean bi lagunentzako asteburua irabaziko du, **NEKATUR** elkarteari esker.
- Aurkezten diren lan guztiak ekainaren 1etik aurrera egongo dira ikusgai [www.basqueresearch.com](http://www.basqueresearch.com) **web** gunean, eta ekainaren 15ean jakinaraziko dira irabazleen izenak.

**Oinarriak** [www.basqueresearch.com](http://www.basqueresearch.com) web gunean daude ikusgai.

